

**EUSKADIKO DEMOKRAZIARI  
ETA HERRITARREN  
PARTE-HARTZEARI BURUZKO  
LIBURU ZURIA**

- Abiapuntua -

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**PERTSONA HELBURU  
COMPROMISO CON LAS PERSONAS**

# EUSKADIKO DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE- HARTZEARI BURUZKO LIBURU ZURIA

0	LIBURU ZURI HONEN ERAIKUNTZA PROZESUA .....	3
1	ZIOEN AZALPENA .....	6
1.1	Aurrekariak.....	6
1.2	Gure konpromiso politikoa.....	8
1.3	Zer da Demokrasiaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuri bat? ..	9
2	LIBURU ZURI HONEN PRINTZIPIOAK: SUSTATZEN DUEN GOBERNANTZA EREDUA.....	11
2.1	Ereduaren printzipioak .....	11
2.2	Zer da eta zer ez da parte-hartzea? .....	13
2.3	Herritarren parte-hartzeak loteslea izan behar al du? .....	16
2.4	Zer oztopo gainditu behar ditugu?.....	16
2.5	Zeintzuk izan behar dute parte-hartze prozesu baten ezaugarriek? .....	20
2.6	Hasi aurretik kontuan izan behar diren hainbat alderdi .....	22
3	PARTE-HARTZERAKO ETA LANKIDETZARAKO EREDU BATEAN AURRERA EGITEKO PROPOSATUTAKO ALDAKETAK .....	23
3.1	Arlo publikoa arlo kolektibotik eraikitzea.....	24
3.1.1	Administrazio hurbila eta iragazkorra, herritarrekiko etengabeko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzen dituenak.....	24
3.1.2	Herritar konprometituak, balio publikoaren sorkuntzan zeregin aktiboagoa beren gain hartuko dutenak .....	27
3.2	“Zehatza” denetik hastea.....	28
3.2.1	Osasunaren eremua .....	28
3.2.2	Ikaskuntza-eremua.....	30
3.2.3	Ingurumenaren eta Ingurunearen eremua .....	33
3.2.4	Gizarte Kohesioaren eremua .....	35
3.2.5	Ekonomia-garapenaren eremua.....	37
4	JARRAIPENA – ZABALKUNDE KONPROMISOAK .....	40
5	ELKARREKIN EGINDAKO LANA .....	46
6	ERANSKINAK.....	49


## 0 LIBURU ZURI HONEN ERAIKUNTZA PROZESUA

Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri honek Euskal Autonomia Erkidegoan balio publiko arduratsua sortzeko proposamen partekatu bat izan nahi du. Helburu horrekiko koherentziari eutsiz, ekimen hori hainbaten parte-hartzearekin eta laguntzarekin eraiki dugu, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udaletako ordezkari politikoek eta teknikariek gai horretan adituak diren pertsonekin, gizarte zibil antolatuarekin eta beren esperientzia eta jakintza eskaini nahi izan duten euskal herritarrekin batera parte hartu duten prozesu baten bitartez.

Beraz, Liburu Zuri gehienek ez bezala, non erreferentzia bibliografiko ugari egiten diren eta gaian ospe handia duten pertsonak egiten dituzten, Liburu honek euskal erakundeek eta herritarrek egunero egin dituzten ekarpenak biltzen ditu. Folio zuri batetik abiatu gara, eta 2013ko abenduan hasi zen ia urtebeteko prozesu aberasgarri baten ondoren, Liburu Zuri honi itxura eman zaio, ordezkagarritasunaz haraindi parte-hartzeari buruzko hainbat ikuspegi barnean hartzen ahaleginduz. Liburu Zuri honen lantze-prozesuan hainbat eduki landu dira agente askorekin eta hainbat metodologiaren bitartez, eta elkarrekin eraikitzeko eta ikasteko konpromisoa hartu duten 400 lagunek baino gehiagok hartu dute parte.

Horretarako 3 jardunaldi ireki egin dira, zeinetan agente adituak, erakundeak eta sozietate zibil antolatua elkartu diren prozesuaren edukiak garatzeko eta faseak diseinatzeko. Aldi berean, hamar bat prozesu espezifikoko egin dira hainbat kolektibo garrantzitsurekin, ikuspegiak eta ñabardurak ere batzeko. Hasieratik eztabaida hori herritarrei ere zabaldu zitzaion [Irekia](#) webgunean, eta [prozesu](#) osoan sortutako txosten guztiak ekarpenak hedatzeko eta jasotzeko plataforma horretan argitaratu dira. Gida eta gardentasun-berme gisa kontraste-talde bat eratu da, parte-hartzearen eremuan hainbat ikuspegi ordezkatzeko zituen komitea, Liburuaren diseinu eta egikaritzapenean orientabideak eta gomendioak eman dituen. Azkenik, prozesu honetan Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren aholkularitza eta laguntza metodologikoa izan dugu, eta era berean bideratzaile-

lana egin du administrazioaren eta gizarte zibilaren eta herritar antolatuen arteko lotura natural gisa.



Liburu honetan, osatu gabeko edukiak, erantzun gabeko galderak eta zehaztu gabeko alderdiak daude seguruenik. Garapen heterogeneoa izan duen testua da. Liburuaren edukia eta lantzea parte-hartzeari zabaldu zaizkionez, aurretiazko baldintzapenik gabe, dituen bertuteek eta akatsek are baliotsuagoa egiten duten Liburu bat eraiki dugu, lankidetzaren oinarri izanik. Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri honek, teorikoa eta kontzeptuala denak, baina era berean bertan biltzen diren ekimenetako bakoitzarentzat neurri eta ekintza zehatzak dituenak, balio, printzipio eta kontzeptu partekatuak biltzen ditu ekintzara bideratutako konpromisoekin batera. **Kaleratzen denetik aurrera aberasten eta zabaltzen joango den abiapuntua izango da.**



## 1 ZIOEN AZALPENA

### 1.1 *Aurrekariak*

Gobernantza-eredu berriak erreklamatzeko dituzten ahotsak gero eta ugariagoak dira. Gure administrazioen eta kudeaketa publikoko prozesuen funtzionamendu demokratikoa hobetuko duten aldaketak behar ditugu, herritarrekin batera sarea sortzeko, entzuteko, arreta eskaintzeko eta partekatzeko, gure eginkizuna modu eraginkor, garden eta erantzunkideagoan egin ahal izateko.

Demokraziarekiko desafektazio-garaiak bizi ditugu, herritarrek politikarekiko, beren ordezkariarekiko eta, azken batean, esparru publikoari eta bere erakundeei lotutako guztiarekiko mesfidantza handia baitute. Era berean, administrazioetik eta politikatik ere errezeloa eta baita nolabaiteko beldurra ere azaltzen dira kudeaketako eta erabaki publikoko prozesuak herritarrei irekitzeari dagokionez.

Gainera, Internetek dena eraldatu du. Boterea birbanatu egin da, pribatutasuna murriztu egin da, eta informazioa monetizatu egin da. Herritarrentzat, administrazio publikoen ekintzak kontrolatzeko tresna bihurtu da Internet. Edozein erabaki edo jardun berehala argitaratu egiten da eta iritzi publikoaren mende geratzen da.

Herritarrak, era berean, erabaki publikoak hartzeko unean komunikazio gehiago, parte-hartze handiagoa eta gardentasun handiagoa izatea eskatzen ari dira. Dagoeneko ez dira konformatzen zerbitzu eta prestazio publikoen hartzaile izatearekin, eta beren komunitatearen noranzkoa markatu behar duten eta haren aurrerapenaren oinarri izango diren etorkizuneko jokalekuen eraikuntzan parte hartzea eskatzen dute.

Informazioa elkartrukatzeko eta komunikaziorako gero eta mekanismo zuzenekoagoak eskatzen dira, non herritarrek eremu publikoan paper garrantzitsuagoa jokatu ahal izango duten eta benetan eraldaketarako motortzat jo



ahal izango diren. Azken batean, parte-hartze handiagoa duen gobernantza-eredu berri ari da eskatzen gizartea.

Hala eta guztiz ere eredu berri hori ez da soilik herritarren eskaera bat edo administrazioaren betebeharrak bat, beharizan bat ere bada, gobernuak dagoeneko beren kabuz ezin dietelako aurre egin gizarte-eraldakuntzei. Gero eta beharrezkoagoa da gobernuaren eta herritarren arteko inplikazioa eta lan koordinatua. Horrek zera dakar, burokrazian oinarritutako kudeaketa-ereduak gaitztea eta herritarrekin konektatzeko ahalmenean oinarritzen diren eredu biziagoekin ordeztzea.

Kalitatezko demokrazia baten aldagai nagusiak erakundearen eta gizartearen artean entzun eta erantzuteko etengabeko jarrera izan behar du, izan ere, herritarrek beren lurraldeko bizitza publikoan eta politikoan parte hartzeak sistema demokratikoa indartzen baitu, eta gainera konpromiso kolektiboaren eragile eta adimen kolektiboa onura komunaren mesedetan bideratzeko modurik onena da.

Esparru publikotik herritarrak prozesu publikoetan inplika daitezkeen bultzatzeaz gain, beharrezkoa da gizarteak aurrea hartzea eta parte-hartze hori sustatzen duten mugimenduak martxan jartzea. Esparru publikoa erantzukizun partekatua bihurtzea da auzia, eta ez soilik politikoengan eta erakundeengan eskuordetzea. Paradigma-aldaketa horrek, erantzunkidetasuna ahalbidetzen duten guneak errazten, sustatzen eta garatzen dituen administrazio bat eskatzen du, subsidiariorik bezalako printzipioetan oinarrituz.

Gure herritarren parte-hartze benetako eta eraginkor baten eta parte-hartze hori errazten duen kudeaketa politiko baten bitartez bakarrik lortuko dugu lurralde kohesionatu, bateratzaile eta berritzaile bat, eraldatzeko, aniztasunetik aberastasuna sortzeko eta aurrerapen-eragile iraunkor izateko gai izango dena.



## 1.2 Gure konpromiso politikoa

Egoera horren aurrean, gobernantza eraginkor batek zera dakar: kudeaketa-prozesu horizontalagoak ezartzea, beste erakunde batzuekin taldean lan egitea, eta herritarrak (eta gizarte-eragile garrantzitsuak) erabaki publikoen prozesuan txertatu eta inplikatzea. Botere publikoek gizartearen ordezkaritza-legitimazioari eusten diogu, baina herritarrekin haiek zuzenean eraginpean hartzen dituzten erabakirik garrantzitsuenen inguruan hitz egiteko, negoziatzeko eta adosteko mekanismoak ezarri behar ditugu.

Herritarren parte-hartzea osagai nagusietako bat da gobernantza berri horretarako, zeren eta:

- Legitimitatea ematen die gobernuei eta erakundeei, haien lana eraginkorra izateko eta haiek sendotzeko laguntza emanez
- Politika publikoen legitimidade handiagoa ahalbidetzen du
- Gizarte-aniztasuna ordezkaturata egotea dakar
- Gizarte-interesak agenda publikoan sartzea ahalbidetzen du
- Herritarrak erabaki-prozesuetan eta bizitza publikoaren antolamenduan inplikatzen ditu
- Gizarte zibila indartzen laguntzen du
- Eta azken batean, emaitzak eta inpaktuak hobetzen dira, balio publikoa, komunitatea, herritartasuna eta demokrazia gehiago sortuz

Eusko Jaurlaritzaren ustez, herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiarene muinean bertan dago. Aspaldidanik gizartearen parte-hartzean errotuta dagoen herria gara, horregatik jakin badakigu balio demokratikoei lotuta eta bizitza publikoan konprometituta dagoen biztanleria sistema demokratiko osoaren indar bizia dela. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzan demokrazia parte-hartzailean sakontzeko eta birsorkuntza politikoko prozesu bat sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarrizketa-printzipioa eta gardentasuna biziberrituz.





Premia kolektiboak eta konpondu beharreko arazoak gero eta konplexuagoak dira. Gobernu eraginkorra garatu nahi dugu, gauzak ondo egin nahi ditugu. Jakin badakigu hobetu egin behar dugula, eta *gauzak hobeto* egin daitezkeela eta ditzakegula, eta era berean *gauza hobeak* egin daitezkeela. Herritarrekin elkarrizketa areagotzea beharrezkoa da, arazoei aurre egiteko, entzuteko eta konponbideak konpartitzeko. Eta gardentasuna ere behar da, herritarrek une oro politika publikoen eta beren prozesu eta zerbitzuen kudeaketaren berri izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak bere 2012-2016 Gobernu Programan herritarrengandik hurbilago dagoen eta efikazia, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioetan oinarrituz jardungo duen administrazio baterantz aurrera egiteko apustua egiten du. Eta printzipio horiek gauzatzeko ezinbestekoa da parte-hartze handiagoa duen administrazio baterantz aurrera egitea.

Gure helburua gai publikoetan gehiago parte hartzen duen Euskal Autonomia Erkidego bat eraikitzea da. Horretarako proposatu dugu **“Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria”** egitea herritarrekin lankidetzan, orri zuri batetik abiatuz eta inolako alde zuzeneko baldintzapenik gabe, administrazio, agente sozial eta herritarrentzat ekintza-esparru bateratu bat garatzeko helburuarekin. Liburu Zuri hau 2014 - 2016ko Gobernu Planean bildutako ekimen bat da, eta ezarri ditugun helburuak betetzen ditu.

### *1.3 Zer da Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuri bat?*

Liburu Zuri bat gizartearentzat oro har interesa duen dokumentu ofizial bat da, gai jakin bati buruzko zalantzak edo zehaztugabetasunak argitu nahi dituenak. Arazo bat ulertzen, konpontzen eta/edo erabaki bat hartzen laguntzen duten ekintzak biltzen dituen gida bat da.

Aldez aurreko dokumentu bat da, Gobernu baten lehentasun politikoak aurkezteko bitarteko gisa erabiltzen dena dagokion legeria txertatu baino lehen. Ez da

konpromiso politiko aldaezina, baina normalki inplikaturako agenteen artean kontsultaldi bat igaro ondoren argitaratu ohi da. Gainera gai politiko eztabaidagarri bati buruzko iritzi publikoaren giroa neurtzeko baliagarria da, eta Gobernuentzat lagungarria da izan dezakeen inpaktua neurtzeko.

Liburu Zuri hau Eusko Jaurlaritzak sustatu du, baina Euskal Autonomia Erkidegorako Liburu Zuria izatea nahi dugu. Liburuan, lehenik eta behin, gobernantza-eredu berri honen euskarri izango diren printzipioak biltzen dira. Ondoren, eredu horretara heltzeko aldaketak eta ekintzak xehatzen dira, eta Liburuan bildutakoaren hedapen- eta jarraipen-konpromisoekin amaitzen da.

## 2 LIBURU ZURI HONEN PRINTZIPIOAK: SUSTATZEN DUEN GOBERNANTZA EREDUA

### 2.1 Ereduen printzipioak

Liburu Zuri honetan bildutako gobernantza-ereduak euskal gizartearen gaitasun publikoak eta pribatuak atzeman nahi ditu eta horiengan jardun nahi du, balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboa bultzatzeko helburuarekin.

Ikaskuntza eta hazkunde partekatuko eredu hori gobernu onaren printzipioetan oinarritzen da: osotasuna, efikazia eta efizientzia, gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzak. Printzipio horiek, kudeaketa publiko on bat bilatzeaz gain, gure gizartearen arazo garrantzitsuenei erantzun hobea eskaini nahi diete, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat aukerak sortuz eta deliberazio demokratikoa sustatuz. Hau da, komunitatea, herritartasuna eta demokrazia sortuz.

Erakunde publikoek baliabide publikoak kudeatzen dituzte, eta haiek baliabide horiekin kudeatzen dira. Haien ekintzek, beraz, ondorio publikoak dituzte. Baina erakunde pribatuak baliabide pribatuekin kudeatzen diren arren, haien jarduerak ere ondorio publikoak ditu. Beraz, esparru publikoa ondasun komun bezala zaindu eta errespetatu behar da. Konpromiso partekatu hori abiapuntutzat hartuz, hainbat gune sortu ahal izango ditugu pertsonak eta haien gaitasunak garatzeko eta lankidetzak-mekanismoak sortzeko, adimen kolektiboak gero eta konplexuagoa den jokaleku baten aurrean irtenbide berriak sor ditzan.

Liburu Zuri honek, beraz, balio publikoaren sorkuntza optimizatuko duten **parte-hartzearen hiru dimentsio** elkartzearen emaitza izango den gobernantza-eredu bat sustatzen du:

- Parte-hartze politikoa, administrazioaren eta herritarren artean politika publikoak diseinatu, planifikatu, monitorizatu eta ebaluatzeko dagoen elkarreraginetik sortzen den parte-hartze gisa ulertua. Efikazia politikoan


oinarritzen den eta izaera estrategikoa duen administrazioen eta gizarte zibilaren arteko parte-hartzearen / lankidetzaren dimentsio bat da: zer egin eta zertarako.

- Zerbitzuak diseinatzeko parte-hartzea. Prestazio horren diseinu, birdefinizio eta/edo hobekuntzan herritarren ikuspegia eta esperientzia (zerbitzu publikoen erabiltzaile-ikuspuntutik) txertatu nahi duen parte-hartze gisa ulertua. Efizientzian gehiago oinarritzen den eta izaera operatiboa duen parte-hartzearen dimentsioa da: zerbitzu publikoen prestazioa nola operatibizatu, doitu eta, azken batean, hobetu.
- Lankidetzan oinarritutako parte-hartzea, gizarte zibiletik balio publikoa sortzeko sortzen diren ekimenak eta lankidetzak bezala ulertua. Erantzunkidetasun-inguruneen garapena ere sustatzen dute, non esparru publikoa elkarrekin kudeatzen den: nola jardun lankidetzan, batzeko.

Hiru dimentsio horiek proposatzen duten erreferentzia-esparruak, politikak modu efikaz eta efektiboagoan kudeatzea bilatzeaz gain, esparru publikoa kudeatzeko modu berri bat ere bilatzen du.

## 2.2 Zer da eta zer ez da parte-hartzea?

### Zer da parte-hartzea?



Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren Jardunaldiaren ondorioen txostena \(Innobasque, 2013\)](#)

Herritarren parte-hartzea ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboko **prozesu bat** da. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abar eraldatu nahi ditu, pertsona guztiei espazioa eta hitza emanaz balio publikoaren sorkuntzan beren erantzukizuna eta eragiteko ahalmena balia ditzaten.

Gizakiak berezkoa du parte-hartzea. Bizitzako eremu guztietan gauzatzen da. Esparru publikoaren eraikuntza horretan eta herritartasun konprometitua eraikitzen duten elkarreraginen sorkuntzan parte hartzen dugu gure auzo-elkartearen bilera batera joaten garenean, gure adiskideekin geure kabuz kudeatzen dugun lokal



batean denbora pasatzen dugunean, edo beste pertsona bati kalea gurutzatzen laguntzen diogunean edo joan nahi duen lekua non dagoen adierazten diogunean.

Parte-hartzea, era berean, **eskubide bat** da. Pertsona guztiek, salbuespenik gabe, eragiten dieten jarduera eta erabaki publikoetan parte hartzeko aukera izan behar dute eta alderdi aktibo izan behar dute, eta herritarren presentzia garrantzitsua bermatu beharra dago jarduera eta erabaki horietan. Eskubidea den heinean, arautu egin behar da, baliatu ahal izateko mekanismoak sortuz. Nolanahi ere, nolabaiteko klientelismoa dago esparru publikoaren aurrean, eta horrek parte hartzea une honetan inoiz baino beharrezkoagoa izatea dakar, eta horregatik parte hartzea herritarren **betebehar bat** ere bada guztion ongia bermatzeko.

Baina hala eta guztiz ere, parte-hartzea borondatezkoa da, nahi duenak parte hartzen du. Eta beraz, **jarrerari** oso lotuta dauden elementuak ditu. Parte hartzeak autonomia, askatasuna, erantzukizuna dakar. Konponbidearen parte izateko interesa azaldu behar da, eta beraz, halakorik ez dagoenean, norbaitek parte hartu nahi ez izatea onartu egin beharko litzateke. Eta muturrera eramanda, parte ez hartzea parte hartzeko modu bat izan daiteke ere. Ohartarazpen bat da, interesik ezetik egindakoa, parte-hartze prozesu onak diseinatzea ezinbesteko egiten duena.



*Eta zer ez da parte-hartzea?*

**EZ DU NORANZKO BAKARREKOA  
IZAN BEHAR**

- Ez da nik nahi dudana galdetzea
- Ez da erantzun zuzena izatea
- Ez da hondatutakoa konpontzea
- Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ezta iritzia ematea ere
- Ez da soilik galderei erantzutea
- Ez da beldur izatea / babestea
- Ez da gauzak gerta daitezen espero izatea
- Ez da "zertan da nire gaia?"
- Ez da arrazoia ematea

**EZ DU MAKILLAJE EGINTZA BAT  
IZAN BEHAR**

- Ez da maniobra politiko bat
- Ez da manipulazioa
- Ez da motibazio partidistekin egindako herritarren instrumentalizazioa
- Ez da kosmetika-lan bat, erakusleio bat...
- Ez da propaganda
- Ez da klientelismoa
- Ez da populismoa

**EZ DA DESOREKAK SORTZEA**

- Ez da emakida bat
- Ez da inposizio bat
- Ez da botere-erlazioa
- Ez da eskuordetzea
- Ez da lehendik hartutako erabakiak justifikatzea
- Ez da inposatzea
- Ez da adostasunaren bilaketa obsesiboa
- Ez da noranzko bakarrekoa

**EZ DA BAT-BATEKO ZERBAIT**

- Ez da araurik gabeko prozesu bat
- Ez da egintza jakin eta puntual bat
- Ez da zentzua eta ezta mugak ere argi ez dauden prozesu batean inplikatzeko
- Ez da itxaropen faltsuak sortzea

**EZ DA MODA BAT**

- Ez da moda bat
- Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- Ez da iritzi-kultura
- Ez da prozesu elitista bat
- Ez da administrazioak sortutako zerbaitekin
- Ez da (soilik) zuzeneko demokrazia, ezta biltzar bat ere
- Ez da inoren jabetzakoa, ezta ezein alderdi politikorena
- Ez da ez burokrazia, ez izapideak

**EZ DA GAUZA SINPLEA**

- Ez da sinplea, konplexua da
- Ez dira monosilaboak, elkarrizketa, iritziak eta kontrasteak behar ditu
- Ez da helburu bat, bitarteko bat da. Baina ez da soilik bitarteko bat: filosofia bat da
- Ez da gonbidapen abstraktu bat
- Ez da azken emaitza, prozesua da
- Ez da helburu bat, helburu horretara iristen garen modua da
- Ez da herritarrentzat, herritarrekin da

*Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren Jardunaldiaren ondorioen txostena \(Innobasque, 2013\)](#)*

### *2.3 Herritarren parte-hartzeak loteslea izan behar al du?*

Herritarren parte-hartzeak ez du nahitaez loteslea izan behar. Baina irtenbide partekatuen bilaketan benetako eragina izan behar du, eta erabaki-hartzearen prozesuan kontuan izan behar da, prozesuan parte hartzen duten pertsonekin gutxienez ere hartu beharreko konpromiso hauetan zehaztuz:

- Informatzea. Prozesuak erabaki-hartzean izango duen benetako eragina zein izango den hasieratik definitu eta azaltzea.
- Bere parte-hartzearen eta ezagutza partekatuaren balioa aintzat hartzea.
- Enpatiaz entzutea.
- Ondorioak itzultzea. Azken erabakian zein gaik izango duten zuzeneko ondorioa, eta zergatik, eta zein gaik ez, eta zergatik.

Nolanahi ere, erabaki-prozesuak herritarren partaidetzara irekitzeak ez du Administrazio eskudunak berme maximoekin erabakiak hartzeko eta egikaritzeko duen ardura saihesten.

### *2.4 Zer oztopo gainditu behar ditugu?*

Parte-hartzea proiektu komun batean diferentziatik abiatuz lankidetzan jardutea bada, eztabaidaezina dirudi parte-hartzearen kultura izango duen gizarte bat eraikitzeko parte-hartzea entrenatu egin behar dela. Hori egiteko parte-hartzearen benetako balioaren eta administrazioek nahiz herritarrek parte-hartze horretan duten rola inguruko hainbat oztopo eta aurreiritzi gainditu behar dira:



## GAINDITU BEHARREKO JARRERAK ETA AURREIRITZIAK

### Kontakizuna berridatz dezagun

Herritarrengan	Administrazioetan
<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Nik ez dakit honi buruz eta gainera oso urrun geratzen zait”</li> </ul> <p>Parte hartzeko ezinbesteko betekizun bakarra nahi izatea eta balizko soluzioaren parte sentitzea da. Denok gara elkarbizitzan adituak, gure ingurunean eragina duten aktore politikoak.</p> <p>Ezagutzarik eza da norbere buruari ezarritako oztopo nagusietako bat, eta administrazioak gehien erabiltzen dituen aitzakietako bat parte-hartze prozesuak ez hasteko. Baina parte-hartze prozesuetako esperientziak frogatzen du ikuspegiaren eta interesen osagarritasuna horiek aberasteko oinarria dela eta informazioa, nahi izanez gero, lortzen dela.</p> <p>Oro har aurreiritzi asko eta ezjakintasuna daude gure gizarteko kolektibo jakin batzuen inguruan, eta beharrezkoa da, inplikatu aurretik, herritar guztiak “subjektu adimendun” gisa hartzea.</p> <p>Bestalde, eta zenbaitetan parte-hartze prozesuak edo eztabaidagai den politikak gu zuzenean eragiten ez gaituztela dirudien arren, administrazioek informazioa, hurbiltasuna eta inplikazioa behar dute beren lana hobeto egiteko (ez soilik efizientziari begira, baita efikaziari begira ere).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Parte-hartzearen gai honek distraitu egiten du. Konplikatu eta atzeratu besterik ez du egiten”</li> </ul> <p>Parte-hartze prozesuek denbora eta ahalegina eskatzen dute, eta horregatik lidergo politikoa eta egokitzeko gaitasun handia eskatzen dute horiek kudeatzerakoan. Tresna eraginkorra dira administrazioa herritarrengana eta kudeaketa publikoaren mekanismoen konplexutasunera hurbiltzeko. Gizartea, eta bereziki kontuan hartu ohi ez diren hainbat kolektibo, administrazioa hurbil daitezen sustatzeko, aurreiritziak apurtzeko eta euskal gizartean dauden gaitasun askotariko eta osagarriak ikusarazteko modu bakar gisa.</p> <p>Parte-hartze prozesuen antolaketa ez da erraza, eta parte hartu behar duten kolektiboen hautespena, bereziki, zaila da (prozesuek ez dituzte interes propioak edo kolektibo jakin batzuenak bakarrik ikusarazi behar). Baina abiapuntua zera da, politikak pertsona berdinek pentsatu eta diseinatzen badituzte, ez dira guk nahiko genukeen bezain eraginkorrak eta osatuak izango.</p> <p>Parte-hartzeak konfiantza, ezagutza handiagoa eta inpaktu hobek sortzen ditu hala prozesuari nola emaitzari dagokienez. Hala eta guztiz ere, gauzak modu desberdinean egiteko benetako borondatea badago bakarrik hasi behar da.</p>

<p>• “Zertarako? Ez du ezertarako balio, gero nahi dutena egiten dute”</p> <p>Ez dago zalantzarik administrazioak sustatutako parte-hartze prozesuekiko nolabaiteko asperraldia dagoela herritarren artean. Arrazoiak hainbat izan daitezke: prozesuaren ondorioen itzulerarik eza, itxaropenen kudeaketa txarra, eta abar. Baina era berean nolabaiteko “pasotismo” (“beste batek konponduko du” delakoa) eta utzikeria-jarrera dago definizioz guztionak diren gai publikoekiko.</p> <p>Beraz, parte-hartzeari jarrera pragmatikoarekin baina era berean nahiko utopikoarekin ekin behar diogu. Egungo egoera ezagutuz sinergiak bilatu behar ditugu eta horrela iraganeko errakuntzak errepikatzea saihestuko dugu. Gure ingurune eta/edo komunitatearekiko konpromiso pertsonala berri behar dugu, inguratzen gaituena eraldatzeko hain beharrezkoa den desadostasun-maila hori (aldatzeko nahia) galdu gabe. Parte-hartzeak kontzientzia eta bihotza eskatzen du guztion onurarako eta ikuspegi kolektibo bat garatzeko.</p> <p>Ez badira ahots guztiak entzuten, politika eta ekimen publikoak ez dira inoiz modu zuzenean garatuko eta ez dira benetakoak izango, ez direlako inklusiboak izango.</p>	<p>• “Zertarako sartuko gara honetan, alde guztietatik astinduko gaituzte”</p> <p>Parte-hartzeak gainditu behar diren beldurrak eta kezkek sortzen ditu, eta enplegatu publikoaren zeregina funtsezkoa da, bera ere herritarra den eta politika publikoen diseinu eta ebaluazioan aditua den heinean.</p> <p>Era berean, beharrezkoa da langile politikoei prozesuetan parte hartzea eta parte-hartzearen benetako kultura bat sustatzea. Herritarrek eta administrazioetako langileek parte-hartzeari dagokionez duten esperientziarik eta prestakuntzarik/heziketarik eza zailtasun bat da erabat inkorporatzeko. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da herritarrak eta beren zereginak modu mekanikoan egiten ohituta dauden langile tekniko eta politikoak heztera/prestatzera bideratutako prozesuak sustatzea.</p> <p>Lege-, politika- eta erakunde-esparru egokiak garatu behar dira, informazioko eta parte-hartzerako neurri onak diseinatzeko aukera emango digutenak kalitatezkoak izango diren eta herritarrei kale egingo ez dieten parte-hartze prozesu batzuk gauzatzeko. Eta gobernantza-eredu berri honengan sinesten dutenentzat “estaldura eta berme” gisa baliagarriak izango direnak.</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Erabili egiten gaituzte”</li> </ul> <p>Herritarren eta erakundeen arteko aldea gero eta handiagoa da, eta erakundeekiko eta kargu politikoekeko konfiantza-arazo bat dago. Egoera konplexu horretatik abiatu arren, herritarren parte-hartzea mekanismo indartsua da herritarrekiko harremanak sendotzeko, eta gainera gure politiken diseinua hobetzeko inbertsio ona da.</p> <p>Erantzukizun politikoak dituzten pertsonak gero eta gehiago jabetzen dira ez dela soilik herritarrarenganako orientabidearen arabera pentsatu behar, herritarrek ekintza publikoan hartzaile-zeregin pasiboa dutela onartuz; baizik eta pentsatu behar dela herritarrek alor publikoaren kudeatzaile gisa lagun diezaieketela elkarrekin balioa sortzen.</p> <p>Herritarrek administrazioak definitutako lehentasunei buruz duten ikuspegia eta eskaintzen dituen zerbitzuen balorazioa barnean hartzea lehentasun politikoa da eta izan behar du, hainbat arrazoi direla medio: gardentasuna, hurbiltasuna, konpromisoa, legitimazioa eta abar. Ezinbestekoa da parte-hartzeari balioa ematea, onartzea eta ikusaraztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Parte-hartzea eskatzen dute, baina gero ez dira etortzen”</li> </ul> <p>Herritarrentzat interesgarriak diren eremu eta esparruetara ireki behar da parte-hartzea. Herritarrek ekarpenen bat egin dezaketela uste duten, eta askotan ukatu egin zaien eskubide bat egikaritzera “amildegira bultzatzen” ez dituzten esparru eta eremuetara. Herritarrek aintzat hartzen dituztela eta baztertuta edo bereizita ez daudela sentitu behar dute; kolektibo batekoa ala bestekoa izateagatik ez dago inor besteak baino gaituagorik.</p> <p>Parte-hartzerako gune arautu gabeak sustatu behar dira eta lidergoak identifikatu eta sustatu behar dira gizarte zibilaren barruan. Pertsona guztiok mantenu, etxebizitza, lana eta/edo hezkuntzari lotutako egoerarik oinarritzkoenak konponduta eduki behar ditugu ingurunearekin parte-hartzeari lotutako harremanak eraiki eta ehundu ahal izateko.</p> <p>Emaitzen argitalpena botere publikoaren propaganda-ekintza izan dadin saihestu behar da. “Parte-hartze txar” ugari izan da, eta hori ez da “zerotik hasten den” bidea. Benetako datuak, zehatzak eta ordenatuak eskatzen dira, baita prozesu bakoitzerako planteatu diren helburuen eta prozesuen emaitzaren arteko lotura aurkeztea ere. Emaitza horiek hizkuntza erraz eta ulergarrian aurkeztu behar dira, baita formatu eskuragarritan ere: hizkuntza administratiboa bazter uztea eta irakurketa oztopatzen duten hitzak saihestuz. Ez bada inpaktua ulertzen, ez zaio deiari jaramonik egiten.</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

*Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren eraikuntza-prozesuaren 2. Jardunaldien ondorioen txostena \(Innobasque, 2014\)](#) eta [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren eraikuntza-prozesuaren kolektiboaren arabeko prozesuen txostenak \(Innobasque, 2014\)](#)*

## ***2.5 Zeintzuk izan behar dute parte-hartze prozesu baten ezaugarriak?***

Oztopo horiek eta beste batzuk gainditzeak, parte hartzen duten pertsonen ahalduntzea errazten eta sustatzen duten prozesuak babestu eta sustatzea dakar. Honako ezaugarri hauek dituzte proiektu horiek:

- **Bi ardatzetan lan egitea, enpatiaz entzutea eta ekarpena egitea.**

### *Zertarako?*

- Dimentsio hirukoitzean eraldatzeko: pertsona, erakundea eta lurraldea.
- Herritarrengan eta administrazioetan pentsamolde-aldaketa bat sustatzeko.
- Azpian dauden botere-erlazioak modu desberdinean artikulatzeko.
- Zereginak argitzeko.

- **Gardenak, inklusiboak eta irekiak izatea.**

### *Zertarako?*

- Administrazioa irekitzeko, barnealdera nahiz kanpoaldera.
- Politikaren eta kudeaketa publikoaren konplexutasunak eta mugak hobeto ezagutzeko.
- Aldaketarekiko erresistentziak gainditzeko, hala erakundean bertan nola herritarrengan.
- Administrazioa herritarrengana hurbiltzeko eta alderantziz, kexaz haraindi joango diren laguntze-prozesuak sortuz.
- Guztion ekarpenak ahalbidetzeko eta onartzeko, inor kanpoan utzi gabe eta aurreiritzirik gabe, hizkuntza ulergarriak eta mekanismo inklusiboak erabiliz (talde gutxiengodunentzat irisgarriak diren kanalak, elkartzeko gune eta ordutegi malguak, testu irakurterrazak, informazio esanguratsu eta antolatua, eta abar).




- **Aniztasuna sustatzea “nola” egiteko moduetan.**

*Zertarako?*

- Parte-hartzea eskuragarria, erabilgarria eta ezaguna izateko, eta helburuen arabera graduatu ahal izateko.
  - Mekanika arazoa/konponbidea moduan bakarrik ez izateko, baizik eta baliagarria izan dadin planifikatzeko, monitoreatzeko, ebaluatzeko eta abar.
- 
- Herritarren eskura jarritako **euskarri eta mekanismo guztiak modu integralean eta koordinatuan kudeatzeko**, hala prozesuaren hasieran nola itxieran (zer izan den kontuan, nola eta zergatik).
  - **Parte-hartzea norantza bikoitzean eman daitekela onartu**: “behetik gorakoa” eta “goitik beherakoa”.
  - **Bere autokritika-maila altua eta bere ebaluazio-ahalmena**. Prozesu orok jardunbide egokiak eta gainditu beharreko gabeziak adieraziko dituen lan pedagogiko bat eduki behar du (*adibidean dago indarra*).
  - **Sare sozialen ahalmenaren erabilera eraginkorra**, online eta offline parte-hartzea eta presentziak lerrotatuz eta segurtasuna eta barne-hartzea bermatuz. Sare sozialak mekanismo erabilgarria izan daitezke izaera zabaleko prozesuak garatzeko (bereziki informatzeko eta mobilizatzeko), espazio fisikoaz haraindi doan elkarlotura sustatzen dutelako. Era berean oso tresna baliagarria dira ingurune publiko batean kezkak partekatzeko eta atxikimenduak bultzatzeko eta ekimen jakin baten hedadura handitzeko. Edozein kasutan kontuan izan beharko da bere berehalakotasuna ez daitekeela beti mesedegarria izan (gogoeta bateratua eraikitzeke zailtasuna), eta sarbide-kanal unibertsala diren arren, hainbat kolektibok oso presentzia txikia dutela bertan.

## 2.6 Hasi aurretik kontuan izan behar diren hainbat alderdi

“Jakitea, nahi izatea eta ahal izateaz” haraindi, parte-hartze prozesuaren kalitatean zuzeneko eragina duten eta, beraz, kontuan izan beharko diren hainbat alderdi baldintzatzaille daude:



Iturria: [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren eraikuntza-prozesuaren 2. Jardunaldiaren ondorioen txostena \(Innobasque, 2014\)](#)

### 3 PARTE-HARTZERAKO ETA LANKIDETZARAKO EREDU BATEAN AURRERA EGITEKO PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

Proposatutako aldaketak **bi atal handitan** banatzen dira:

- ***Arlo publikoa arlo kolektibotik eraikitzea.*** Administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako parte-hartzearen kultura bat sustatzeko jarrerak eta printzipioak aipatzen ditu atal honek. Era berean bi ataletan banatzen da:
  - Administrazio hurbila eta iragazkorra, herritarrekiko etengabeko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzen dituenak.
  - Herritar konprometituak, balio publikoaren sorkuntzan zeregin aktiboagoa beren gain hartuko dutenak.

Administrazioa eta herritarrak loturarik gabeko bi arlo bezala aurkezten dituen banaketa hau artifizial samarra gerta daiteke, moduren batean ala bestean, bata bestearen baitan baitago, baina prozesuan zehar jasotako ekintzen ulermena eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz burututakoa da.

- ***“Zehatza” denetik hastea.*** Bigarren atal honetan Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoko 5 eremutan garatu beharreko konpromisoak eta ekintzak planteatzen dira, eremu horietan herritarren ikuspegiak eta parte-hartzeak horien garapenean balio handiagoa eman dezaketelarik:
  - Osasuna
  - Ingurumena
  - Ekonomia-garapena
  - Ikaskuntza
  - Gizarte-kohesioa

Eremu horietako bakoitzarentzat, era berean, hainbat ekintza planteatzen dira 2 mailatan:

- Ekintzak Administrazioaren aldetik: lehentasunezko ardatzak eta ekintza zehatzak.
- Ekintzak herritarren aldetik.

Hala ere, hurrengo fasean, komenigarria litzateke Liburu Zurian adostutako printzipioetan oinarrituz, Foru eta Udal Administrazioen eskumen diren arloetan herritarren parte-hartzea txertatzeko bideetan sakontzea.

### *3.1 Arlo publikoa arlo kolektibotik eraikitzea*

Administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako parte-hartzearen kultura bat sustatzeko jarrerak eta printzipioak.

#### *3.1.1 Administrazio hurbila eta iragazkorra, herritarrekiko etengabeko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzen dituenak*

Parte-hartzea barnean hartzeak balio-aldaketa bat dakar administrazioarentzat. Konpromisoan eta erantzukizunean sakontzea dakar, abiapuntutzat hartuz ekintza publikoaren garrantzia, enpatia (parte hartzeak zu bezala pentsatzen ez duten pertsonen entzutea dakarrelako) eta umiltasuna (erantzun guztiak ez dauzkagula jakitun izanik), elkarrizketari eta lankidetzari eusten dieten gaitasun emozional berriak garatuz.

Parte-hartzeak era berean gardentasun handiagoa eskatzen du. Informazioa modu ulergarrian eta hainbat mailatan irekitzea eta eskura jartzea alderdi garrantzitsutzat jotzen dira. Azken batean, egiazko informazioa, nahikoa eta argia ematea denbora errealean, “intoxikatu gabe”, eta ez soilik edukiei buruzkoa baizik eta baldintzei eta inguruneari buruzkoa ere. Gardentasun-printzipio hori, informazioa eta mugen eta gaitasunen definizioa abiapuntutzat hartuz bakarrik eraiki daiteke Administrazio hurbila eta konfiantzazkoa, aniztasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik erantzunkidetasuna sustatzen duena.

Dena den, parte-hartzeak era berean bere beldurrak, kezka eta arriskua hobeto kudeatzera behartzen du administrazioa. Egiteko moduak aldatzera, lan-eskemak berriro planteatzera eta autokritika-gaitasuna garatzera behartzen du, proiektu



bakoitzaren berezko nondik norakoa eta diferentzia onartuz. Aldaketa hauek gauza daitezen, parte-hartzeak denbora eta baliabideen inbertsioa behar du. Parte-hartzea, beraz, administrazioak erabaki hobeak hartzeko, bere politika eta zerbitzuetarako eragin hobeak lortzeko aukera bat da. Gauzak beste modu batean, herritarrekiko zerbitzuaren funtsa berreskuratuz, egiteko aukera ahaztu gabe.

#### *Ekintzak:*

- Administrazioaren esku dagoen informazio publikoari balioa ematea eta herritarren eskura jartzea, horrek izaera pertsonaleko datuen babesa urratu gabe:
  - Open data politikarekin jarraitzea. Hau da, datu publikoak formatu berrerabilgarrian herritarren eskura jartzea, helburu bikoitzarekin: gardentasuna bermatzea eta balio ekonomikoa, soziala eta publikoa sortzea.
  - Zerbitzu publikoen erabilzaileen kexak, erreklamazioak eta esperientziak zerbitzu horien diseinu eta ebaluazioaren barnean hartzea.
- Parte-hartzea ebaluatzea.
  - Administrazioak azken 2 legegintzaldietan sustatu dituen gutxienez ere 6 parte-hartze prozesuen barne-ebaluazioa egitea, parte-hartze prozesuak ebaluatzeko gutxieneko oinarri kontzeptualak finkatzeko eta prozesu berrien diseinuan erabil daitezkeen ondorioak ateratzeko (parte-hartzea ikaskuntza-prozesu gisa).
  - Prozesua osorik eta ez soilik amaieran ebaluatuko duten adierazleak garatzea, parte-hartzean oinarritutako jarraipen-mekanismoak eta kontuak ematekoak inplementatuz. Epaitegi etikoaren edota sindikoaren figurak tresna baliagarriak izan daitezke horretarako.
- Tokiko elkarte-sarearen proposamenak, erreklamazioak eta abar jasotzeko mekanismoak edo organo eskudunak garatzea Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren eremuetan. Kanal horiek elkarrizketa

argia eta benetako eta baliozko erantzun-ahalmena (ez automatikoa) ziurtatu beharko dituzte.

- Parte-hartzearen balioa onartzea.
  - Pertsonak eta kolektiboak ahalduzko prozesuak aktibatzea bideratzaile-zeregin batetik (auzoeraketa, auzolana) eta ez lidergo eskusiboko zereginetik, horien balioa onartuz eta ahal denean barneko gogoeta-prozesuetan txertatuz. Komunitate-sektore guztiak eta bertan metatzen den esperientziari behar den balioa ematea ezinbestekoa da.
  - Gobernuan dagoen alderdia edozein izanda ere, gizartearen beharrak eta eskariak jasotzeko eta lantzeko parte-hartzea erraztuko dituen elkarguneak eta bitarteko egiturak sustatuz.
  - Herritarrek sortu eta garatzen dituzten prozesu parte-hartzaileak instituzioetan jaso eta kokatu (administrazioak nola erlazionatu ahal eta behar du prozesu mota hauekin)
  - Parte-hartzearen gizarte-onarpena sustatzea, lan kolektiboaren alderdi positiboak ikusaraziz.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartzerako sare antolatua osatzen duten elkarteak solaskide legitimo gisa eta benetako eragina izateko ahalmenarekin aintzat hartzea.
- Parte-hartzea agenda publikoan kokatzea.
  - Parte-hartzerako eskubidea eta administrazioaren betebeharren eta eginbeharren zehaztapena arautzea.
  - Parte-hartzearen inguruan akordio eta konpromiso politikoak bilatzea, ekintza betearazlean ezinbesteko elementu gisa txertatzeko.
  - Genero ikuspegia zeharkako-ardats gisa aintzat hartzea.
- Barne-aldaketak sustatzea.
  - Antolaketa-kulturaren eremuan lan egiten jarraitzea, sormena eta parte-hartzeari lotutako prestakuntza ahalbidetuz eta bultzatuz. Egiturretan eta barne-antolaketan eraldaketa bat bermearekin gauzatu ahal izateko oinarriak ipiniko ditu, ikuspegi zeharkakoagoa eta multidimentsionalagoa sustatzeko.

- Aldaketa-prozesu bat hastea hala prozeduretan eta barne-kudeaketako jarraibideetan nola administrazioaren barne-harremanetan, pertsonen konplizitatea bilatuz.

### 3.1.2 Herritar konprometituak, balio publikoaren sorkuntzan zeregin aktiboagoa beren gain hartuko dutenak

Parte-hartze prozesuek herritarrei hainbat gune eta une eskaintzen dizkiete beste pertsona batzuekin kezka, interesak eta arazoak partekatzeko eta trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzeko (adibidez: entzuteko gaitasuna, enpatia edo komunikatzeko gaitasuna). Era berean, aldarrikapenetatik haratago doan ikaskuntza kolektiboko prozesu bat ere bada parte-hartzea. Herritarren parte-hartzeak herritarrak subjektu aktibo bihurtzen ditu eta jarrera-aldaketa bat ahalbidetzen du: entzuna izate hutsak, herritarren ahotsa eta arazoen konponketan betetzen duen zeregina onartzeak, herritarrak eraikuntza kolektiboko proiektuetan gehiago inplikatzeko eta politikarekiko eta politikan diharduten pertsonenganako konfiantza berreskuratzea dakar.

Arlo publikoa sinplifikatzen laguntzen duen “gizaki sozialaren errekupezioko” prozesu horretan zeregin erabakigarria betetzen du aldaketa kulturalak: kolektibismora itzultzea. Parte hartzeko motibazioak eta interesak “hau ez da nire kontua” ideia aldatzea eta “parte hartu nahi ez izate” hori nondik datorren ulertzea ere badaukarte. Beraz, harresiak eraisteko aukera bat da, baina era berean egungo lokartze-egoera horretatik ateratzeko aukera bat da: ardura eta konpromisoa dakartza.

#### *Ekintzak:*

- Itzulera kolektiboa duten ekimenetan parte hartzeko konpromiso pertsonala bere gain hartzea, gure komunitateko kide izatearen zentzutik.

- Eskuordetzearen / klientelismoaren dinamika haustea eta herriaren gobernagarritasuna neurri batean bere gain hartzea, espazio publikoan jarduterakoan.
- Espazio publikoaren berreskuratzean agente aktibo izatea (denbora, ahalegina eta dedikazioa).
- Administrazioen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren eta elkarlanaren bitartez ekintza politikoan parte hartzeko eskubidea baliatzea, hala pertsonalki nola erakunde-mailan.

### *3.2 “Zehatza” denetik hastea*

Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoko eta eskumeneko 5 eremutan garatu beharreko konpromisoak eta ekintzak, eremu horietan herritarren ikuspegiak eta parte-hartzeak horien garapenean balio handiagoa eman dezaketelarik. Eremuen araberako ekintzak Eusko Jaurlaritzako sail jakin batzuei esleitu zaizkien arren, ekimenen lidergoari dagokionez interpelatuenak izan diren sailei hain zuzen ere, atal bakoitzean **deskribatutako ekintzak zeharkakotasuna eta sailen eta erakundeen arteko lankidetzak oinarritzat hartuz egin beharko dira.**

#### *3.2.1 Osasunaren eremua*

Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren (sektore guztien eta herritarren) arteko lankidetzak eta parte-hartzeak, osasun indibidualaren nahiz osasun kolektiboaren prebentzioaren eta sustapenaren berreskuratzean kontuan izan beharreko elementuak izan behar dute. Osasuna, beraz, eskubide indibiduala baina era berean erantzukizun kolektiboa da, beste hainbat alderdiren artean prebentzioaren aldeko apustua egiten duen eta osasun-kultura sustatzen duen kalitatezko sistema sanitario bat sendotzera bideratu behar dena. Herritarren parte-hartzea lagungarria izan daiteke lehenetsunak identifikatzeko, eta zerbitzu publikoen monitorizazioa eta ebaluazioa egiteko. Baina era berean balio handikoa izan

daiteke arreta-sistema oinarritu behar duten printzipioen mugak defendatzeko eta marrazteko: unibertsaltasuna, elkartasuna, ekitatea, efizientzia eta kalitatea.

*Ekintzak Administrazioaren aldetik:*

- Osasun Sailaren jardun-ardatzetan herritarren parte-hartzea txertatzea, erakundeetatik eremu sanitarioan garatzen diren politiken arteko aldea murrizteko lehen pauso gisa, herritarren iritziarekin eta ustearekin, eta sistema sanitarioaren baliabide publikoen erabilera eraginkorragoa errazten duten mugak definitzeko. Honako hauek bereziki azpimarratuz:
  - Osasun-sistamarako ekitatezko sarrera.
  - Sistema sanitarioaren iraunkortasuna.
  - Gune sozio-sanitarioa.
  - Farmazia-gastua.
  - Autonomiaren sustapena – mendetasuna.
- Osasun Saitetik lan egitea, zeharkako moduan, Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako ekintza-proposamen zehatzen inguruan, osatua izango den eta edukia izango duen herritarren parte-hartzerako politika baten garapena sustatzeko:
  - Aurrekontu-gardentasuna (gastuak, kostuak eta inbertsioak) erraza eta herritarrentzat ulergarria den hizkuntzan.
  - Informatzeko fakturak jaulkitzea.
  - Arreta-irizpideak bateratzea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan arreta sozio-sanitarioko plan bat lantzea.
  - Pertsonal sanitarioak Jaurlaritzako beste sail batzuetako plan estrategikoetan parte har dezan ahalbidetzea. Osasunak politika guztietan isla izan behar du.
  - Erakunde Sanitario Integratuetan osasun-kontseilu bat sortzea, non agente protagonistak (ekimenen sustatzaileak) auzo-elkarteak eta Udalak (edo inguruko beste edozein tokiko erakunde) izango diren. Organo horrek teknikarien nahiz gizartearen iritzia jasoko luke.

- Pertsonak norbere osasunean lidergoa izateari buruz kontzientziatzeko ekimenak sustatzea (hezkuntza-curriculumean osasunari buruzko irakasgai bat sartzea, gai jakin bati buruzko programa puntualez, enpresaren eremuko programez edo jardun-planenez eta abarrez haratago).

*Ekintzak herritarren aldetik:*

- Norberaren osasunean paper protagonista bere gain hartzea.
- Ahalegin kolektiboak batzea euskal erakunde eta udalerrietan ingurune osasungarriak sortzeko.
- Proiektu berriak proposatu ahal izateko kanalak erabili eta exijitzea, pertsonal sanitarioaren, herritarren eta interes-taldeen arteko topaguneak (espazio fisikoak) nahiz aplikazioak (espazio birtualak) direla ere.

*3.2.2 Ikaskuntza-eremua*

Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira pertsonen garapen integrala lortzera eta erantzunkidetasuna bezalako balioen sustapenera bideratutako ikaskuntza-inguruneak garatzeko eta finkatzeko. Pertsona eta erakunde guztiak hezkuntza-agente izan daitezkeela adierazten duen ikuspegitik bakarrik lor daiteke eremu komunitarioa pertsonen eta kolektiboen hazkunde inklusibo eta autonomiaduneko ingurune izatea. Espazio horien sendotzea, bere hezkuntza- eta prestakuntza-eremuetan gizarteak eta lan-merkatuak eskatzen dituzten gaitasunetara bizitza osoan zehar egokituta egongo den eta kalitatezkoa eta malgua izango den hezkuntza-sistema batekin osatu beharko da. Beti ere, pertsonen garapena helburu izanda eta lan-bizitzatik harago doan hezkuntza prozesuan oinarrituta. Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren hezkuntza-sistemaren garapenari beste ikuspuntu eta ikuspegi batzuk txertatzea ahalbidetu dezakeen hurbilketa bat da, eta gainera hezkuntza-sistemaren kalitateari, malgutasunari edo orientabideari lotutako alderdiak definitzeko eta kontrastatzeko lagungarria izan daiteke.



*Ekintzak Administrazioaren aldetik:*

- Herritarren parte-hartzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren jardun-ardatzetan txertatzea, etengabeko prestakuntzaren printzipioetan murgiltzeko (ikasten ikastea), eta gizartearen hezkuntza-balioa onartzen duen ikaskuntza-ekosistema baten etekin pertsonal eta sozialetan sakontzeko (ez soilik enplegagarritasunari lotuta, baita herritartasun aktibo eta erantzunkideari lotuta ere). Honako ardatz hauek bereziki azpimarratuz:
  - Ikasleak hezkuntza-sistemaren erdian.
  - Etengabeko ikaskuntza.
  - Hezkuntza-berrikuntza.
  - Hizkuntza-politika.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik lan egitea, zeharkako moduan, Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako ekintza-proposamen zehatzen inguruan, osatua izango den eta edukia izango duen herritarren parte-hartzerako politika baten garapena sustatzeko:
  - Irakasleen irudiaren ospea eta balioa berreskuratzea, etengabeko prestakuntzako eta ebaluazioko sistema bat garatuz.
  - Hezkuntza-sisteman gertatzen den segmentazioaren inguruan prozesu kritiko bati ekitea, hezkuntza zentroak partaidetzarako gune izan daitezen inklusio eta aniztasunaren lanketaren bitartez.
  - Hezkuntza-ereduari buruzko hausnarketetan agente ekonomiko eta sozialak barnean hartzea.
  - Ikaskuntza-ingurune informalak edo ez-formalak onartzea eta sustatzea.
  - Hezkuntza curriculumean txikitatik partaidetza-gaitasun eta balioak txertatzea (sormena, izaera kritikoa, eta abar), beste batzuekin hartu-emanan errazten duten teknologien jabeakuntzarako beharrezkoak diren trebetasunak barne.



- Akordio politiko sendoak sustatzea: gero eta konplexuagoa den hezkuntza-engranaje baten bitartez garatu nahi ditugun balioen eta printzipioen (gizarte-eredua) inguruan eztabaidatzea.
- Oinarrian komunitatea ikaskuntza-ingurune gisa duten proiektuen garapenean laguntzea finantzaketa-ildoen bitartez.
- Lehendik atzemandako tokiko jardunbide egokien garapena babestea eta nazioarteko beste batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte- eta hezkuntza-errealitatera egokitzea, bertan inplementatu ahal izateko.
- Interes edo diskurtso politikoez haratago doan konpromisoko, errespetuzko, elkarbizitzako eta hizkuntza-aberastasuneko esparru bat lantzea.
- Hezkuntzako / ikaskuntzako ekosistema osatzen duten agente / pertsona guztien interakzioa eta lan bateratua sendotzea iragazkortasuna bermatzeko.

#### *Herritarren aldetik:*

- Hainbat ingurunetan jardutea (erakundea / lana, familia, ohiko ingurunea, eta abar) “buru-ereduak” aldatzeko, aukeren bideratzaile izanik, ezagutza eta jakintzak partekatuz, gure inguruko pertsonengan jakin-mina piztuz, komunitatean eraiki eta bizitzeko gure gaitasun kritikoa eta autonomia baliatuz.
- Etsenpluaren bidez praktikatzea, gazteenentzat eredu eta erreferentzia izanik, eta era berean ikaskuntza erantzukizun pertsonal bat dela baina hezkuntza erantzukizun komunitario bat dela jabetuz.
- Ematea eta hartzea herritarrek beren komunitatearekin duten konpromisoaren oinarri gisa, lankidetzari, autonomiari eta parte-hartzeari lotutako lan-ereduak praktikatzuz eremu guztietan eta pertsona guztiekin (pertsona horien adina, generoa edo jatorria edozein izanik ere).



### 3.2.3 Ingurumenaren eta Ingurunearen eremua

Herritarren parte-hartzea beharrezkoa da lurraldearen, azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzaren antolamendu errespetuzkoa eta orekatua egiteko; eta era berean gure mendetasun energetikoa minimizatzeko duen eta berotegi-efektuko gasen emisioak eta aldaketa klimatikoaren eraginak arinduko dituen mugikortasun integratuko eredu iraunkorrago bat garatzeko. Dena den, hazkunde eta garapen ekonomikoa gure gizartearen motor nagusia diren bitartean, ondasun komunaren ikuspeirik gabe, zaila izango da funtsezko eraldaketak gauzatzea. Ingurumenaren eremuan gobernu-ekintzako ildoetan herritarren parte-hartzea txertatzeko xedez, parte-har daitezkeen bi ardatz handi izan behar dira kontuan, eta funtsezkoak izan daitezkeen ikuspegi eta agente berriak inkorpora daitezke bertan: antolamendua eta plangintza (ingurumena kontserbatzeaz gain erabilera eta gozamendu iraunkorra bermatu ere nahi duten ekimenak eta ekintzak sortzeko) eta sentsibilizazioa, ingurumenaren erronka ez delako erakundeen arazo eksklusiboa, baizik eta pertsona guztiena.

#### *Ekintzak Administrazioaren aldetik:*

- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren jardun-ardatzetan herritarren parte-hartzea txertatzea, esparru horretan araudi-garapen ausartagoa eta asmo handiagokoa lortzeko, honako ardatz hauek bereziki azpimarratuz:
  - Lurraldearen antolamendua.
  - Hirigintza-plangintza eta -antolamendua.
  - Berotegi-efektuko gasen emisioa.
  - Aldaketa klimatikora egokitzea eta horren aurka borrokatzea.
  - Ingurumen-prebentzioa, -babesa eta -leheneratzea.
  - Balio natural handiko guneak eta naturagune babestuak.
  - Hondakinak: babestea eta kudeatzea.
  - Ingurumen-heziketa, -prestakuntza eta -sentsibilizazioa.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saitetik lan egitea, zeharkako moduan, Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako ekintza-proposamen

zehatzen inguruan, osatua izango den eta edukia izango duen herritarren parte-hartzerako politika baten garapena sustatzeko:

- Diseinu-fasetik, norbanakoen interes kolektiboak alde batera utzita, interes-kolektiboak babestuko dituzten gizarte zibila eta interes-talde komunitarioak inplikatzeari honako hauetan:
  - o Epe luze-erdiko estrategietan barne hartutako lurralde-antolaketa-erako proiektuak.
  - o Hiri-espazio baten birmoldaketa edo birdefinizioa helburu duten hirigintza-plangintza eta -antolamenduko proiektuak.
- Garraioa, energia, kontsumoa eta eraikuntzari buruzko araudiak garatzea.
- Balio natural handiko guneak eta naturagune babestuen aipatzen dituzten informazio- eta eztabaida-prozesuak: tokiko parte-hartzerako dinamikak sustatzeko, adibidez auzolana, bideratzaile gisa jarduteko (betiere gure ingurumen-ondarearen zaintzaren eta mantentzearen printzipioak oinarri izanik), eta konpentsazio-sistema on bat garatzea.
- Hondakin-produkzio maila txikiagoak lortzea (hala lur-ingurunean nola itsasoan) edo horien kudeaketan interes desberdinak bateratzea helburu duten proiektuak.
- Ingurumen-hezkuntzako ekimenak, herritarrentzat oro har eta gazteei eta haurrei zuzendutakoa ere, baita enpresei eta beste agente sozio-ekonomiko batzuei zuzendutakoa ere.
- Berotegi-efektuko gasen emisioari buruzko datuak eta neurketak argitaratzea (gardentasun-politika), eta euskal udalen lankidetzaren sustatzea erabilera- eta kontsumo-ereduekin lotzeko.
- Informazio osoa, ulergarria, gardena eta objektiboa ematen duten informazio-sistemak garatzea: egin nahi diren ekintza politikoen alderdi negatibo eta positiboaren azterketak txertatzea, proposamena nahiz alternatibak (kostuak eta etekinak, ez soilik ekonomikoak) azalduz.

### *Herritarren aldetik:*

- Baliabide naturalen erabilera arduratsua egitea:
  - Uraren erabilera murriztea.
  - Berokuntza-sistemak hobeto erabiltzea.
  - Olio jasotzea.
  - Etxetresna elektriko jakin batzuen (hozkailea, ontzi-garbigailua, eta abar) erabilera (baita erosketa ere) arrazionalizatzea.
  - Etxetik lan egitea, aukera hori dagoenean.
  - Garraio publikoa erabiltzea, edo bestela autoa konpartitzea.
- Kontsumo indibidualak kolektiboan, ingurunean eta produkzioan duen eraginaz jabetzea:
  - Tokiko merkataritzaren, hurbileko produktuen edo zero aztarna ekologikoaren aldeko apustua egitea.
  - Enbalajerik gabeko produktuak (edo ahal den gutxiena dutenak) aukeratzea.
  - Modu egokian birziklatzea.

### *3.2.4 Gizarte Kohesioaren eremua*

Herritarren parte-hartzea eta administrazioen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak funtsezko ardatzak dira Euskal Autonomia Erkidego erabat integratzailea eta kohesionatua sendotzeko, enplegua, hezkuntza, prebentzioa eta elkartasuna oinarritzat hartuz, eta gizarte-babeserako sistemak indartzeko, garapen harmoniatua, osasungarria eta ekitatezkoa bermatzen jarrai dezaten. Enpleguak beste gizarte-arazo batzuk konpontzeko motor eta konpontzaile gisa duen zeregina ahaztu gabe, zerbitzu-prestazioko eredu inklusibo baten apustua egin behar da, eta horretarako beharrezkoa da baliabideak bideratzea eta hiri-dinamikak eta -ekimenak aktibatzea, autonomia pertsonalaren garapena eta erabateko herritartasunerako eskubidea bermatuko dutenak.

*Ekintzak Administrazioaren aldetik:*

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren jardun-ardatzetan herritarren parte-hartzea txertatzea, euskal gizartea osatzen duten pertsona guztiak subjektu aktibo gisa erabat gizarteratzea helburu nagusia dela ahazten ez duen babes-sistema bermatzaile bati eusteko, honako ardatz hauek erreferentzia gisa hartuz:
  - Elkarbizitza eta aniztasunaren kudeaketa.
  - Gizarte-laguntza bermatzea behartsuenei.
  - Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea.
  - Gazteen enplegua sustatzea.
  - Haurren eskubideak.
  - Hirugarren sektorea sustatzea.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saitetik lan egitea, zeharkako moduan, Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako ekintza-proposamen zehatzen inguruan, osatua izango den eta edukia izango duen herritarren parte-hartzerako politika baten garapena sustatzeko:
  - Gizarte zibila eta interes-talde komunitarioak inplikatzeko honako hauek:
    - ✓ Elkarbizitzaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloetan oinarritutako politika, plan eta zerbitzuen garapen, inplementazio eta ebaluazioa.
    - ✓ Pertsonen gaitasunen garapena eta ahalduntzea sustatzen duten zerbitzuen diseinua (edukiak eta prestazioa).
    - ✓ Premien eta gizarte-bazterkeriaren arrazoiak aztertzeko eta testuinguruan jartzeko proiektuak.
  - Gizarte-hitzarmen berri bat definitzea, ez ikuspegi asistentzialistatik baizik eta ikuspegi garantista batetik.
  - Zeharka gazte-enplegua sortzen laguntzen duten inguruneak sortzea (araudiak, lankidetzakoak, eta abar).
  - Haurrak, eta “politika-objektu” izaten diren beste hainbat kolektibo, beraiengan eragina duten erabakietan parte-hartzaile izateko proiektuen garapena bultzatzea.

- Hirugarren Sektoreko lankidetzak (eta bitartekaritzak) sortzea eta/edo garatzea, eta eremu horretako erakundeetan barneko parte-hartzerako prozesuak bultzatzea.
- Enpresen gizarte erantzukizun korporatiboa sustatu eta aintzat hartu.

#### *Ekintzak herritarren aldetik:*

- Herritar aktibo gisa duten zereginari buruzko gogoeta indibiduala egitea (konstruktiboa, efektiboa, interaktiboa, zoriontsua, sormenezkoa, erabakigarria, lankidetzakoa eta abar).
- Pertsona eta erakundeekin lankidetzak-jarrera izatea.
- Porrota ikaskuntza-prozesuaren beste urrats bat bezala onartzea.
- Boluntariotza egitea, pertsona bakoitzak bere nahietatik edo errebeldietatik.
- Funtsezkoa garapen pertsonala dela irakastea eta aldarrikatzea, garapen profesionalaren eskutik betiere, eta bide horretan pertsona bakoitzak protagonista izan behar duela: proiektu eta ekimen propioak gara daitezke eta garatu behar dira.
- “Adibide eta preskriptore” izatea: “eman – hartu” eredu batetik “sorkuntzakidetzak” eredu batera igarotzea.

#### *3.2.5 Ekonomia-garapenaren eremua*

Euskal Autonomia Erkidegoa ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki gisa posizionatzeko, egungo premiak etorkizuneko belaunaldien baliabideak eta aukerak arriskuan jarri gabe asetzeko gai izateko, beharrezkoa da euskal sare sozial eta ekonomikoa osatzen duten pertsona eta erakunde guztien gaitasunak eta ekarpenak kontuan izatea. Horregatik, politika ekonomikoari eta lehiakortasun-politikari zuzenean edo zeharka lotutako parte-hartze prozesuak garatzea ezinbestekoa da.

*Ekintzak Administrazioaren aldetik:*

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren jardun-ardatzetan herritarren parte-hartzea txertatzea, herritarren konpromisoan eta giza garapen iraunkorrean oinarritzen den garapen-eredu ekonomiko eta sozial bat birdefinitzeko helburuarekin, honako ardatz hauek abiapuntutzat hartuz:
  - Industria-politika
  - Ekonomia soziala bultzatzea
  - ETEei laguntzea
  - Ekintzailatza
  - Talentua bultzatzea
  - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema eta I+G+b
- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saitetik lan egitea, zeharkako moduan, Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako ekintza-proposamen zehatzen inguruan, osatua izango den eta edukia izango duen herritarren parte-hartzerako politika baten garapena sustatzeko:
  - Parte-hartze prozesu bat martxan jartzea herri-estrategia partekatu bat sortzeko, bi ardatz oinarri izanik: nolako herria garen (eta nolako herria izan nahi dugun) eta nondik eraiki nahi dugun (zeintzuk diren gure nortasuna eta gure balioak, zeintzuk diren gure erreferentziak eta eraldakuntza-prozesu dinamiko eta jarraitu bat nola sor dezakegun).
  - Enpresa-eremuan (enpresa gizarte-agentea den heinean) gizarte-balioak berreskuratzeko programak garatzea.
  - Gizarte-erronkei erantzuten dieten lankidetzaproiektu, negozio berri eta enpresa-ekimen multisektorialeiei finantza-laguntza ematea.
  - ETEei laguntza emateko mekanismo berriak garatzea, batez ere 3 arlo handiren inguruan: Zerga-politikak, prestakuntza-politikak eta nazioartekotzea.
  - Start-up deitutakoak sortzeko izapideak malgutzea.
  - Barneko ekintzailetzari laguntzeko programa espezifiko berriak garatzea.

- Euskal lanbide-heziketaren eredua indartzea, honako hau sustatuz: enpresa-munduarekiko lotura handia, eta gaitasunei eta balioei lotutako prestakuntza.
- Talentua erakartzeko programen inpaktua neurtzea, baita enpresa-eremuan duten inpaktua ere.
- Ikerketa-zentroetatik enpresetarako jakintza-fluxua hobetzeko gainditu beharreko oztopoak identifikatzea.
- Ekonomia parte-hartzailearen baitako ekimenak bultzatzea (kooperatibak, crowdfunding-a, denbora bankuak, eta abar).
- Erosketa publiko arduratsua oinarri duten irizpideak txertatzea.
- Kalitatearen eta bikaintasunaren kudeaketa ereduetan interes-taldeen parte-hartzea barneratzea.

*Ekintzak herritarren aldetik:*

- Arduraz kontsumitzea, kontsumitzen diren ondasunen produkzio-mekanismoak kontuan izanik.
- Bizitza osoko ikaskuntzarekiko konpromiso pertsonala hartzea.
- Pertsonak oinarri dituen eta ingurunearekin konprometituta dagoen ekonomia-garapena sustatzen duten gizarte-mugimenduetan aktiboki parte hartzea.
- Autoeskaera eta gure erakunde eta enpresekiko gaitasun kritikoa garatzea.
- Zero gizarte-tolerantzia zerga-iruzurrarekin.



## 4 JARRAIPENA – ZABALKUNDE KONPROMISOAK

Liburu Zuriaren eraikuntza-prozesua baliagarria izan da argi uzteko Administrazioak sustatzen dituen parte-hartze prozesuak lantze partekaturako oinarritzko balio batzuetan oinarritu behar direla, hala formari nola edukiari dagokienez.

Logikoa eta koherentea da balio horiek era berean erreferentzia izatea zabalkunde- eta jarraipen-fasean:

- **Inklusibitatea**, gure gizartea osatzen duten pertsona guztien gaitasun askotariko eta aberasgarrien balioa aintzat hartzeko eta horiek kontuan izateko adibidetzat hartuz. Pertsona guztien ekitatezko parte-hartzea bermatzea eskatzen du, eta diferentziaren balioa errespetatzea eta onartzea dakar, pertsona guztien duintasuna eta herritartasun aktiboa sustatuz.
- **Gardentasuna**, informazio publikoa eta erabaki politikoak hartzeko motibazioak eta prozedurak eskuratzeko eskubidean oinarritzen dena. Informazio horrek egiazkoa, kalitatezkoa, eskuragarria eta herritarrentzat ulergarria izan behar du, horrela bakarrik sortzen baita ekintza politikoarekiko konfiantza eta segurtasuna. Era berean, herritartasun erantzunkidea eta parte-hartzailea garatzeko ezinbestekoa da bere eskubideak eta betebeharrak ezagutzea eta baliatzea eta bere erakundeekin aktiboki lankidetzan jardutea.
- **Lankidetz**a, konfiantzatik abiatuta, ideia berri, balio berri eta proiektu berri partekatuen eraikuntzan oinarritzen dena, lankidetz-lotura egonkor eta



eraginkor baten bilaketan hainbat ikuspegi barnean hartuz. Beharrezkoa da gogoeta-estrategia bat eta borondatea ekintzarekiko motibazioak arrakasta izan dezan, eta aldatzeko jarrera batean eta "desberdinarekin" lankidetzan jarduteko nahian gauzatzen da: norberaren jakintza abiapuntutzat hartuz, jakintza hori partekatu egiten da prozesuan balio-eraldaketak sortzeko.

- **Berrikuntza**, pertsonak, erakundeak eta gizarteak nahi duten etorkizunik onena (hobea, zuzenagoa, solidarioagoa, gaituagoa eta abar), etengabe eta modu irekian, sortzeko duten trebetasun gisa ulertua, hori guztia balio indibiduala eta kolektiboa sortzen duten eta eragina duten ideia berriei balioa emanaz gauzatuz. Lehiakortasuna eta jakintza-transmisioa sortzen du, eta gizakien garapen iraunkorraren oinarrietako bat da.

Euskal herritarren eta administrazioen artean elkarrizketa- eta interakzio-mekanismoak eraldatzeko, ez da eraginkorra ezta bidezkoa ere hainbat politika garatzen jarraitzea euskal herritarren, agente ekonomiko eta sozialen eta administrazioen arteko komunikaziorako, lanerako eta lankidetzarako sareak sortu gabe.

Herritarrekiko zerbitzuan oinarrituta dagoen eta irekia, gardena eta erantzunkidea izango den gobernantza-eredu berri bat eratzeak, beraz, orain arte egindako lanaren zabalkunderako konpromisoak eta jarraipen-mekanismoak eskatzen ditu. Liburu Zuri honen eraikuntza-prozesuan bildutako eskaera eta kezketan oinarrituta, **Eusko Jaurlaritzak honako hau egiteko konpromisoa hartzen du:**

- **Adostasun zabala lortzen duten eta bermatu ahal izateko arauzko tresnak behar dituzten gaiak arau-proposamen gisa jasotzea.** Bereziki, eta Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektuaren lantzearekin eta



legebiltzarreko eztabaidarekin bat eginik, parte-hartze prozesuek eraginkorrak izateko barnean hartu behar dituzten herritarren parte-hartzerako eskubideak onartzeko konpromisoak, sustapen-neurriak, tresnak eta oinarrizko bermeak bilduko dira Lege horretan. Besteak beste azpimarra daitezke:

- Herritarren parte-hartzerako eta elkartzeko gune egonkorak eta askotarikoak garatzea, politika edo zerbitzu publikoei buruzko eztabaida edo proposamena egitera bideratuko direnak.
- Norabide anitzeko elkarrizketa bultzatzea, herritarren parte-hartzea eta konpromiso publikoa sustatuz kontuan hartzerakoan.
- Interes publikoko proiektuetan agente publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak sustatzea, eta guztion mesederako diren herritarren ekimenak ere sustatzea.

Konpromiso horren edukia 2014/9/16an **onartu zen Euskal Administrazio Publikoaren Legearen** bitartez garatu da, eta lege horren oinarrizko edukia I. Eranskinean bildu dugu.

- **Gizartearen aurrean egiten den Liburu Zuriaren aurkezpena** herritarrekin dagoen konpromisoaren adierazgarri gisa eta erakunde guztiek eztabaidatzeko eta kontuan izateko akuilu gisa hartzea. Halaber, prozesu honen ekarpenak beste instituzio, organizazio eta erakundeei helaraztea erantzukizun partekatuko eredu zentrokidetik abiatuta, eta horrela, erakunde horiek osatzen dituzten pertsonak emaitza biderkatu ahal izango dute beste esparru edo erakunde batzuetan.

*Burutzeko epea: 2014 – 2015.*

- **Eusko Legebiltzarrean bertaratzea** Liburu Zuria aurkezteko, lidergo politikotik eta eraikuntza partekatuko prozesuarekiko errespetutik

jarraitzeko bokazioa duen demokraziako eta herritarren parte-hartzeko esparru bat sustatzeko.

*Burutzeko epea: 2015eko lehen hiru hilabeteetan.*

- **Esperientzia berritzaileen garapena sustatzea** gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte-hartzea bultzatzeko formula desberdinak esperimentatzeko aukera ematen duten 2-3 proiektu piloturi babesa emanez.

*Burutzeko epea: 2015 – 2016.*

- **Liburu Zuriaren barneko zabalkundea egitea** jaurlaritzako egituretan, administrazioan arlo publikoa kudeatzeko modu desberdin bat errotzen saiatuz. Beharrezkotzat jotzen diren kasuetan, barne-zabalkunde horrek Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren aholkularitza izango du:

- Langile publikoentzako eta zuzendari publikoentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak garatzea, parte-hartzearen prozeduren eta tresnen berri emateko eta horien erabilera sustatzeko.
- Liburu Zuriaren lantze-prozesuan bildutako gobernu-ekintzako eremu jakin batzuei buruzko herritarren ekarpenak organo eta sail eskudunei helaraztea eta haiekin harremanetan jartzea.

Parte-hartzea sustatzeko sailen arteko lan-konpromiso hori dagoeneko garatzen hasi da **Osasun Sailak** egin duen “**Parte-hartzea osasunean**” esku-hartzerako estrategia baten diseinuaren bitartez, zeinaren edukia II. Eranskin gisa gaineratu dugun.

*Burutzeko epea: 2015 eta hurrengoak.*

Era berean, azaroan zehar burututako Euskadiko Demokraziari eta herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren **kontraste** prozesuan, hedatze eta jarraipen fasean aintzat hartu beharreko 10 gai zehaztu dira:

1. Identifikatzea **egitura eta dinamika kolektiboak**, baita bitarteko kanalak ere (adibidez, sindikatuak, federazioak, elkarteak), eta horiek parte hartzearen lankidetzaren alderditik ekar dezaketen balioa ere bai, administrazioen eta herritarren arteko "zubigintza" sendotzeko egitura gisa.
2. Euskadin egin diren **prozesu parte-hartzaileen garrantzia azpimarratzea eta aintzatestea**; ikasitakoa baliatzea.
3. Euskadin dauden **prozesu parte-hartzaileen eta kanal formalen** inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden **kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak** berrikustek, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez.
4. **Teknologia berriek** –parte hartzeko elementu gisa– ohiko formatu presentzialetatik harago duten garrantzian sakontzea.
5. **Prozesu parte-hartzaileen diseinua**: nola egin prozesu parte-hartzaile erakargarriagoak eta irismen handiagokoak, inklusio-printzipioak errespetatuz; nola ekin transbertsalitateari dinamika parte-hartzaileetan (generoa, osasuna, adina, open data, hezkuntza, eta abar), haren mugak...
6. Nola sustatu **kultura parte-hartzaile bat** (nola irakatsi parte hartzen, nola ikasi, nola sortu kultura), eta zein den Administrazioaren papera kulturaren sustapenean: partaidetza-hezkuntza, parte hartzearen aintzatespen soziala, solaskide legitimoen aintzatespena, partekaturiko gune eta baliabideak, eta abar.
7. Parte hartzeko konpetentziak (politikoak eta herritarrenak) eta nola garatu konpetentzia horiek egikaritzeko trebetasunak eta portaerak.

8. Erreminta-kutxa bat diseinatzea, parte hartzeko formula ezberdinak zerrendatuko dituen a –haren abantailak eta desabantailak adierazita–, **bai eta parte hartzeko lanabes eta metodologiak ere jasoko dituen a.**
9. **Prozesu parte-hartzaileen ebaluazioa:** adierazleak, parte ez hartzeko arrazoiak, ez errepikatzeko arrazoiak, emaitzak eta inpaktuak, jarraipen-batzordeak, eta abar.
10. Herritarren partaidetzaren alorrean **administrazioarteko lankidetzarako tresnak** garatzea (kontseilua, batzordea, foroa, eta abar).

Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria oraindik ere eraikitzen ari den prozesu baten barruan dagoen dokumentu bizi gisa jaio da. Ez da, beraz, helmuga bat, abiapuntu bat baizik, emaitza gisa denboran zehar iraunkorra izango den eta erakundeen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzan oinarrituko den Euskal Autonomia Erkidegorako balio publikoaren sorkuntza partekatu bat izango duten erreforma garrantzitsuagotan aurrera egiteko.

## 5 ELKARREKIN EGINDAKO LANA

Elkarrekin, eta orri zuri batetik abiatuta, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri hau idazten parte hartzen ikasi dugu denok.

- 400 pertsona baino gehiagok hartu dute parte prozesu orokorrean, nahiz garatu diren kolektiboen arabera prozesuetako bakoitzean burutu diren lan-jardunaldietan, eraikuntza partekatua egin daitekeela argi utziz. Liburu Zuri honen eduki guztiak sortu dituzte eta Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte hobe baten eraikuntzan berritzen jarrai dezagun ahalbidetu duen ezinbesteko utopia-maila hori erakutsi dute.
- Kontraste Taldea osatu duten pertsonek prozesu hau gauzatzeko beren jakintza eta esperientzia partekatu dituzte, eta hasieratik talde sustatzailearengan konfiantza izan dute, gardentasuna, entzutea eta lankidetzaren oinarri izango zituen adibide bat izango zelakoan zeudelako.

- Ana Viñals Blanco, gizarte-aktibista eta Aisialdi Azterketetan ikertzailea.	- Antonio Campos Illarramendi, Helduak Adi taldeko kidea.
- Arantza Ruiz de Larrinaga, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Parte-hartzerako zuzendaria.	- Concha Maiztegui, Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea eta Aita Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Deustuko Unibertsitatea.
- Lorena Fernández, Deustuko Unibertsitateko Nortasun Digitaleko zuzendaria.	- Maria Luisa Mendizabal, Helduak Adi taldeko kidea

- Osane Lizarralde, Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea.	- Pedro Ibarra, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika Zientziako irakaslea
- Rafa Ajanguiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientziako irakasle titularra.	- Ricardo Antón, ColaBoraBora taldekoa.

- El Regato Ikastetxeak, Durangoko Maristak, Down Sindromearen Fundazioak, Entzun Gure Nahiak, Harresiak Apurtuz-ek, Mondragon Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Behargintza Leioak, Basurtoko Auzo Elkartek eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, beren erakundeetako atak zabaldu dituzte eztabaida sustatzeko, ikuspegi gehiago batzeko eta prozesua aberasteko xedez.
- EDE Fundazioak eta EuropeDirectBizkaiak beraien Lego SeriousPlay proiektua prozesu honen eskura jarri dute, izan ere, jolasaren bitartez sormena eta ideia-sorkuntza bultzatu duen metodologia izan baita, paralizatuta uzten gaituzten aurreiritzietatik askatuz eta eraikuntza positiboari begira kokatuz.
- Coach & Play-ko Danel Alberdik, Gasteizko saioetarako metodologia propio bat diseinatu eta aplikatu du, argudioak eta jarrerak kolektiboki aztertzeko eta sortzeko aukera eman zuena, bertan ez zeuden ikuspegiak txertatuz, eta parte-hartzeari buruzko argudioak eta jarrerak lotzen dituzten adierazpenen inguruan lan eginez.

- *Team coach*-ek eta Mondragon Unibertsitateko Team Academy-ko ikasle gazteek, Donostiako jardunaldien diseinu eta dinamizazioan beren laguntza eskaini zuten, elkarrengandik urruntzen diren ikuspegietatik bat egiten eta ideia konplexuak ekintzarako konpromisotan operatibizatzen lagundu duen metodologia batekin.
- Tekatrik taldeak BOSTEN mugi metodologia diseinatu du beren-beregi Liburu Zuriaren kontraste-jardunaldietan elkarguneak eta iritzi trukatzek eragiteko asmoz . Elkarrizketa eta partaidetza sustatzeko tresna hau talde handietan kontzeptu-, ideologi- edo teoria-dentsitate handiko gaiak lantzeko aproposa da.
- Iritziak Batuz-ek, gobernantzako jardunbide egokien identifikazio-prozesuan ekarpen aberatsak egin ditu.
- HAEE-k, Gasteizko Udalak, Donostia 2016k, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, parte-hartze prozesuaren lurralde-zabalkundean lagundu eta lan egin dute.
- Eta Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Publiko eta Gobernu Irekiaren lan taldeak proiektuaren lidergoa hartu eta, modu konprometituan, “Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria” elkarlanean garatzeko erronka beren gain hartu du.

Ibilbide honetarako aukeratu genuen eslogana, “Elkarrekin eraikiz – Co-creando valor público”, lan osoaren itsasargia izan da, baina orain azken ondorioetaraino zabaldu beharko da, benetan gure ondare kolektiboaren zati izan dadin. Mila esker.



## 6 ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Parte-hartzearen erregulazioa. Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektua.

II. ERANSKINA. Euskal osasun sistema publikoan herritarren partaidetza sustatzea.

III. ERANSKINA Herritarren parte-hartzeari lotutako nazioarteko eta tokiko jardunbide egokiak.

IV. ERANSKINA. Liburu Zuriaren lantze-prozesua eta lortutako produktuak.

V. ERANSKINA. Terminoen glosategia.

VI. ERANSKINA. Parte-hartzeari buruzko bibliografia.

VII. ERANSKINA. Liburu Zuriaren lantze-prozesuan parte hartu duten erakundeak eta pertsonak.



elkarrekin eraikiz  
cocreando valor público